

2024ko maiatzaren 3a, ostirala

## II. ERANSKINA

LANBIDE HEZIKETA PRESENTZIALEAN, ESKAINTZA OSOAN, ONARTZEKO, ESLEITZEKO  
ETA MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK.

Lehenengoa.– Onarpen-eskaera egiteko, onarpen-zerrendak argitaratzeko eta matrikulatzeko egutegia.

OHARRAK: Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira. Ikastetxe batean egindako izapideak bertako idazkaritza irekita dagoen ordutegian egin beharko dira.	<b>ESKAITZA OSOA DUEN PRESENTZIALAREN IRAKASKUNTZA</b>
Onarpen-eskaera aurkeztea (LEHEN KURTSOA)	Maiatzaren 6tik 24ra Online: maiatzaren 24ra arte
Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera	Online: maiatzaren 24ra arte
Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskineko bosgarren jarraibidean adierazitakoa)	<b>Ekainaren 28ra arte</b> (dokumentazioa online edo aurrez aurre ikastetxe batean aurkezten dutenentzat) Ekainaren 21era arte (gainerakoak)
Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea	Uztailaren 5a
Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea.	Uztailaren 10eko 12:00ak arte
Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratzea	Uztailaren 11
Matrikula egitea (LEHEN KURTSOA) <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ohiko epea <ul style="list-style-type: none"> <li>I. fasea</li> <li>II. fasea</li> <li>III. fasea</li> </ul> </li> <li>● Ezohiko epea</li> </ul>	I: Uztailaren 11tik 15era, 15eko 14:00etara bitartean II: Uztailaren 17a III: Uztailaren 19tik 22ra Uztailaren 23 eta 24an eta irailaren 2tik urriaren 18ra bitartean.

Bigarrena.– Online nahiz aurrez aurre aurkeztutako onarpen-eskaeren berezitasunak.

Eskaera-inprimaki bakarra beteko da Eskaintza Osoaren Modalitateko Araubide Presentzialaren irakaskuntzetarako: C Graduak (profesionaltasun-ziurtagiriak, 1. maila, 2. maila eta 3. maila), D Graduak